

### Donostiako Orfeoia

**A**urtengoa urte oparoa izan da Donostiako Orfeoiarentzat. Besteak beste, Salzburgetako musika jaialdi ospetsuan parte hartu zuen Berlioz musikariaren "La Damnation de Faust" operaren egokitzapenarekin. Lan honen estreinuan La Fura dels Baus Kataluniako taldearekin batera aritu zen. Ikuskizun abangoardista, ikusgarri eta indartsutzat jo zuten musika kritikariek. Guztira, 250 lagunek parte hartu zuten aipatu operan. Donostiako Orfeoi kideak musikari ezagunekin izan ziren eskenatokian: Paul Groves tenorea, Vesselina Kasarova eta Willard White baxua, besteak beste. Zuzendari lanetan, berriz, Sylvain Crambreling ospetsua izan zen. Orfeoiaren emanaldiak oihartzun handia izan zuen. 1999an gorapamen ugari jaso du Orfeoiak, eta bere izena munduan zehar barreiatu da.




**Cristina Iglesias**

**D**onostiako eskultoreak Espainiako Arte Plastikoen Sari Nazionala jaso zuen Pablo Palazuelo madrildarrarekin batera. Epaimahaikideek, Iglesiasek erakutsitako sormen gaitasuna saritu nahi izan zuten. Donostiarrak, orain artean, egurra, burdina eta porlana erabili izan ohi ditu. Euskal Herrian egindako azken erakusketa Guggenheimen izan zen ikusgai. Horren aurretik, New Yorken izan zen bere lanak erakusten. Cristina Iglesias, 1956an jaio zen Donostian. Kimika ikasketak egin zituen arren, artearen bideari jarraituko ziola erabaki zuen. Londresen eta Europako hainbat hiritan bere lanak erakusten aritu ondoren, 1986an, Veneziako 46. Biurtekoan izugarritzko arrakasta lortu zuen. Ordutik hona etengabe aritu da lanean eta adituen esanetan, etorkizun oparoa du.

### Koldo Izagirre

**L**an franko egin du Izagirrek 1999an. Aurreko urtean kaleratutako "Nik ere germinal! egin gura nuen aldarri" eleberriari esker, Manuel Larramendi Bazkunak antolatutako Beterriko Liburua 1998 saria eskuratu zuen 1999ko maiatzean. Liburua, heriotza zigorrari buruzkoa da eta bizkaieraz idatzi zuen. 1999an zehar, beste hainbat liburu kaleratu zituen "Balizko erroten erresuma" eta "Mendekuak" izeneko liburuen egileak: "Agirre zaharraren gartzelaldi berria" eta "Fernandoren heriotza amezketarra" bertsolariari buruz egindakoa. Horrezaz gain, Koldok Joseba Tapiaren "Quebec: hamalau kantu independentziarako" izeneko diskorako ere hainbat hitz egin zituen. Pasaian 1958an jaio eta aspalditik Donostian bizi den idazlea emankorra da oso. Hargatik eskaini diogu tarte hau. Ez duk erreza konpai!



## RESA GUIPUZCOANA, S.A.

GIPUZKOAKO KONTZESIONARIO BAKARRA



N-1 444. km.a  
Billabona (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: (943) 690400

**Arlo guztietan aintzindariak**